

1892/VII/20 : Eli ehun urte

ZENBAIT hilabete honetan barrena, argi-iturri oparo bihurtzen da prentsa irakurtzea. Aste berean (Uztailako bigarren astean, adibidez) elkargainka agertu zaizkigu nazio-mogimenduei buruzko berriak.

Oraindik ere Eslobakia Askatuaren oihartzunak izali ez direlarik (gure garaiko 'Txekoslovakia' hura gure begien aurrean puskatu baita), harrapaladan haizatu dira beste nazio-arazo batzu.

Egunero, bortzikeria basaren bidez, Serbiak bere inperialismo lotsagalduari eutsi nahi dion unean, soluzio-bidez Bosnia-Herzegobinaren zatiketaren somatzen da soluzioa: jadanik aldarrikatuak diren bi errepublika berriei (kroaziarra bata, eta serbiarra bestea, biak Bosnia-Herzegobinaren barruan), bertako 'muslimena' erantsiko litzaieke orain. Eta Sarajebo, Trieste eta Berlingen antzera, Bosnia-Herzegobina hirukon orren hiriburu amankomuna bihurtuko litzaieke.

Kasu horiek ez dira bakarrak. Kroazia-Errepublikaren barruan bide bertsutik, berein errepublika berezia aldarrikatu dute berriki bertako serbiarrek: 'Krajina Errepublika' deritzo.

1914ko gerratearen ondorioz Austria-Hungaria suntsitu zenean, gerra-galtzaileen lurralde-zatiketa antolatuta zuten irabazleek. Eta 1920an Trianongo bake-ituna sinatu zen. Hori dela-ta, eta hango herrien arteko berezko muga aintzakotzat hartu ez zutelako, hungariar pilo bat gelditu zen Eslobakia barruan, gutxiengo gisa (569.000 lagun gaur egun). Teorian bederen, eskola eta administrazio eskubide linguistiko batzu atxiki dituzte urte hauean.

Hots, orain dela gutxi Eslobakia bere gaintasuna lortzean, milioi erdi hungariar hori 'elebiduna' omen dela-ta (ez baita egial) eslobakiera ezarri du lege-hizkuntza bakartzat

eta Estatu berriko eskualde guztietan. Hungariar gutxiengoak beldurtu egin da horretara, muga ofizialen faltsua salatu du, eta herrien Auto-Determinazio eskubidea gogoratu, ahalik eta autonomiarik zabalena eskatu du. Administrazioan, adibidez, eta ahozko harremani dagokienez, hungariarrak % 20 baino gutxiago diren eskualdeetan, beren maggyar hizkuntza erabiltzeko eskubiderik gabe geldituko lirarteke. Eta hori ez dute inolaz ere onartuko. (Han ez omen dago Buesarik).

Alor berean, baina beste muturrean noloz-pait esateko, Moldavia-Errepublikako erri-siarrek (etorkin berriak; Stalinen zatikeria horietakoa baita Moldavia errumaniarrena), okupazioko armada erri-siarren buru den Lebed generalaren bedekiazioaz bizkorturik, Arjeliako Salan, Kongoko Tschombé eta Hego-Afrikako Declerken bide-tik abiatu dira; eta burujabetza abertzale zuzunen proiektuak oro zikinduz, 'Transnistria-Errepublika erri-siarra' aldarrikatu dute. Etxetik kanpo aldetik datorrenak botako baitzaitu zeure etxetik, omen.

Europar bakarrik ez, ordea, herri ukatuen pizkundea nabarmen hori.

Canadan ere (Ipar-Amerikan, beraz) Burujabetza osoaren aldeko mugimendu abertzale azkartuz doa. Han ere, aurreko kasu guztietan bezala, bai sortu den *borroka* eta bai herrien izaera-ardatza, *nazio-hizkuntza*ren inguruan kokatzen da. Egun hauek antze aurkeztuko zaie Quebecarrei gainerako bederati probintziek prestatu duten akordio konstituzionala. (Jakina denez, Meech Lakuko porrotaren ondoren, geldirik dago dena Kanadan).

Bourassaren gobernuak (Quebecokoak, beraz) gainerako probintzietatik datorren proposamena aztertuko du segituan. Quebeci behar adinako autogobernuri eskaintzen ez badio, datorren Urriaren 26an (edo lehenago,

agian) *Auto-Determinazio prozesua* abiaraziko du Bourassak. Quebecentzako 'Burujabetza Osoa' eskatuz ('pleine souveraineté' irakurtzen dugu frantsesez).

Horra hor 'munduko haizeak'. Zertan gara gu??

Alferrik da hitzerditan ibiltzea. Denis Langlois adiskideak zehazki errepikatzen duenez, «aukera historiko bat» gaitzen ari gara. *Ari gara gu, abertzaleok*, jakina. Anti-euskaldunek, bertako salduen laguntzaz, herri honen arroz-kuntza, erdibiketa eta fundiera inoiz baino aurrerago eraman dute beren asmoa.

Orain, hain zuzen, *datorren astelehenean*, Uztailaren 20an, *Eli Gallastegi* abertzale profetikoaren I mendeurena ospatzera goazelarik, eta 'Mendigoizaleen' eta 'Jagi-Jagitarren' merezimendu eta aurrikusmen harrigarria azpimarratuko ditugularik, mementua etorri da abertzaleok; alegia, herri honen *aberrri-askatasuna* eta *nazio-burujabetza* zinez bilatzen eta nahi dugun *guztiok*, siglen gainetik, perlesiak jota bide dauden alderdien gainetik. Elik altxatu zuen *Independentzia* helburu bakarraren inguruan elkartzeko eta geure indarrak antolatzeko. Taktikak taktika, sektoreak sektore, gehigarriak gehigarri, eta gerokoak gero, *guk gaur egun*, Europako eta mundu guztiko hamaika herrik bezala, *Auto-Determinazioa* eta *Burujabetza* eskatzen ditugu.

Izan bedi *Nazio-Burujabetza* abertzale *guztion borroka-ardatza*.

Gainerako, oso bidezkoa izanik ere, *gero eta geure artean* aztertu eta erabakiko dugu.

Lehenengo pausua: *Burujabetza*. Besterik ez.

IXILLARDEGI
EHU-KO IRAKASLEA

UEU: Ghetoa...? Oasia...? Ala...??

BAIONAN lehenik, Iruñean orain eta Euskal Herriko beste hiriburu eta herri batzuetan azkenik udazkeneko ihardunaldietan, burutuko da aurtengo UEU. Hogeigarrena jadanik. Zerbaít da.

Hirurogeigarrengo hamarkadaren inguruan gauzatu zen euskalgintzaren erimto sozial berriak zera kausitu zuen, besteak beste, euskarak urteetan eta mendeetan pairatutako ordezkapen prozesua egiaz gainditu ahal izateko ezinbestekoa dela euskararen berreskurapena bere osotasunaren planteiatu beharra, hau da, euskaldunon eguneroko hizkera eta zernahitarako bakarra euskarak izan behar duela.

Textuiguru honetan ezin ahantzi eta saihestu Unibertsitatearen arazoa eta beharra. Eta, nola ez, eztabaidagai eta eginkizun bilakatu zen. Eta UEU sortu.

Unibertsitateaz mintzatzea eta gehiago zerbaítetan aritzea ur handietan sartzea denez, harrotu zuen bai hitzik ekimen honek haseratik bertatik.

Ghetoa

Erdalzaleek eta basko erdaldunek dira gehienbat horren salaketa ala beldurra adierazten dutenak.

Nik dakidala, UEUk ahalgin guztiak egin izan ditu, kezka, jitez, lan-motaz... hurbileko ala kide izan daitezkeenengana, urteratzeko lehen urratsak ematen. Ghetoko egoera, bestalde, indarra dutenek sortarazitako zerbaít izan ohi denez, salaketa hau egiten dutenek pentsa beharko lukete gheto arriskua nondik etor daiteken...

Oasia

Kausa meteorologikoen eta gizakion harrapakeriak sortzen ditu basamortuak. Ba da, beraz, hemen ere, zertaz gogoeta egin.

Euskaldunok basamortuak eguneroko igaro eta pairatu beharrea gaude. Eskerrak ba direla zenbaít oasi! Hauetariko bat UEU, noski. Gure erantzukizuna dugu ez ditzala basamortuak oasiak irentsi. Heda ditzagun oasiak basamortu osoa berdegune bilakatzeraino.

Hazia

UEUkide askok onartuko luke UEU Euskal Unibertsitatearen hazi bezala zertzea.

Hala izatekotan, bi gauza dira oso kontutan hartu beharrekoak. Alerik hobereenak dira hezitarrako gorde ohi direnak. Hor duzue errenka, beraz, UEUkideok. Bestetik, haziak, fruturik emango baldin badu, solo ondo landua behar du eta langintza hori ez da

UEUren kontua soilik. Baina UEUk ahalbidetu eta bultzatu beharko du.

Entseiu orokorra

Zerbaít aurrerago gaudela esan nahiko luke honek. Kontu serioetan ari gara eta nik uste guztion gogoia eta borondatea dela urratsak sendotasunez ematea eta erabakiak garrantiaz hartzea. Horren arabera, erabaki beharko da zenbat eta zermolako entseiuak egin, eta noiz igaro beste mota batetako emanaldietara.

Ghetoa ez; oasia bai, noski; hazia zein entseiu orokorra... beharko luke izan.

Aurretiz ala borondate txarrez —horrelakorik ere ba da eta, zoritxarrez— eman daitezkeen definizioei erantzuteko biderik hobereena seriotasunez lan egitea da, dudarik gabe. Hogi urtetan erraztasunak baino zailtasunak arago ezagutu dituen ekimen honek ba du dagoeneko eskarmenturik eta espero dugu inoiz baino serriagoa ekingo diola aurtengoari.

MARTIN ORBE
UEU-KO LEHENDAKARI OHIA

BERRIAKZIRI



JEAN FRANCOIS BLANCO
Jaiotza Parot eta Jean Philippe Casobanneren abokatu ARGIJA

«Atxilotu dutenetik,

Unai Parotek ezin izan ditu bi alabak besarkatu, eta horrela bere haurrak ere zigortzen dituzte»



MILAN PANIC
Iugoslaviako lehen ministroa EL MUNDO

«Nazioarteko es-

kuhartzeta gure garaiko tragediarik handiena izango da»



MIGUEL BOYER
Españoko Euzkarnia eta Hegoaldeko ministro ohia INTERVIU

«Estatuak enpresari

txarra dela uste dut. Politika eta arazo sindikalen antzeko zailtasunak tartekatzen zaizkio enpresa publikoari»



PILAR MIRO
Elveko zuzendari nagusi ohia eta zineletoa EL PAIS

«Ez zait Gonzalezen

arrazoibidea interesatzen, urtero hurrengo bizpahiru urteetara jotzen du eta»

ZAKILIXUT

© Olanagaqak

